


*Hans
Christian
Andersen*



IPUINAK

HANS CHRISTIAN ANDERSEN

I P U I Ñ A K

Etxebarria'tar Juan Anjel'ek

euskeratuta

HANS CHRISTIAN ANDERSEN

Dinamarca'n jaio zan 1805-garren urtean. Oso gazte zala, amazazpi urtedun, trajedi bi idatziak eukazan. Etxeko epelean, aitak, ipuiñak eta antxiñako jazokunak edestuten eutsozan: Idazteun-zatiak, Dinamarca'ko elezarrak eta Milla ta bat gauetako gertaerak.

Aita barik geratu zanean, Copenhague'ra joan zan bizimodua ataraten. Ikasketak egin ta gero «Voyage à Pied de Holmen à la Pointe Est d'Amager» argitaratu eban. Abegi ona egin eutsoen-eta, olerki batzuk eta ipuin bat agertu ebazan gero. Suiza'n eta Alemania'n ibillia zan. Ogeitamar urteko zala, lenengo ipuin-idaztla

agertu eban, orduko kritikak eta gizarteak olako idaz-mueta guztiz atsegin ez ba eben be.

Ipuin-egille ospetsua, ez dau naspil andirik erabilten bere irakurgaietan. Arrigarri dana beti ekarten dau bere gizurenen onez, ondo urten daitezana.

Lenengotan izen andiegia irabazi ez arren, geroago ipuin-idazle jatorra lez agertu da edonun. Egia, bere ipuiñai jatortasuna, bakuntasuna ere darie sarritan. Askotan, olako edo alako idaztunean, eztenkada gogorra sartu oi dau urliaren edo sandiaren aurka. Dana-dala, ipuinlari jatorra ta atsegiña dogu betiko.

Euskeratzailleak

ERREGIN-GAIA TA IDARRA

Bein erre-gai bat bizi zan erregin-gaia, benetakoa gero, gura ebana. Mundu guztian ibilli zan bat aurkitzeko. Baiña beti aitzakiren bat izaten zan. Erregin-gaiak ba-egozan, egon, ta ugariak atan be. Berak, ordea, ezin jakin ziur-ziur. Beti be zer edo zer egoan bere gogokoa ez zana. Etxera biurtu zan betillun, egiazko erregin-gaia gura leukean-ta!

Arratsalde baten eguraldi baragarria zan. Trumoiak, oiñeztarriak, euria ibaika. Itzal. Jau-regiko atean jo eben ta Errege zarra joan zan idegiten.

Erregin-gai bat antxe kanpoan. Jaungoikoa,


zelako erregin-gai itxura ekarren euritan eta aro aretan! Uleak eta soiñekoak ura jarionga, euria surrean eta oiñetakoetan be sartzen ya-kon, orpotik urtenaz. Ta benetako erregin-gaia zala!

«Ondo da, orixe jakin bear dogu!» egin eban Erregin zarrak. Ta ezer esan barik, lo-gelan sartu, oe-estalki ta jantziak jaso ta idar txiker bat ipiñi eban oe-barruan. Gero ogei lastamargi artu ta idarraren gaiñean zabaldu zituan. Gaiñera, lastamargi-gain, aate-lumazko ogei buruko.

Antxe lo egin bear eban gabean erregin-gaiak.

Biamonean itandu eutsoen ia zelan lo egin eban.

«Zelako txarto, esan eutsen erregin-gaiak. Gau guztian begirik itxi barik! Batek ba-daki zer egoan an oe-barruan! Zer gogor baten gaiñean



etzan ta soin guztia ubelduta daukat. Ikara garrria!».

Orduan igarri eben egiazko erregin-gaia zala. Ogei lastamargi ta ogei buruko egon ta alan be idarra nabaitu. Egiazko erregin-gaia izan ezik, ezin leukean narru-azala orren bigun euki.

Erregegaiak emaztetzat artu eban, oraingoan ba-ekian egiazko erregin-gaia ebana. Idarra, barriz, arri-bitxien kutxan ipiñi eben. Ta antxe egongo da oraindiñokarren, iñork ostu ez ba dau.

Or dozue jazokun bat, benetakoa, gero.

MUTIKO OKERRA

Beiñola olerkari zar bat bizi zan. Olerkari zarra ta ona. Arratsalde baten, etxean egoala, eguraldi zatarra zan kanpoan. Euria ibaika jausten zan. Olerkari zarra, baiña, epel-epel egoan, gogora, sua txinpartaka ari zan bere berokiñaren ondoan. Antxe sagarrak erretzen. Olako eguraldiagaz kanpoan dabiltzan gizajoak ondo bustita ibilliko dira, iñoan bere kautan, on utsa zan-ta.

«Ene, zabaldu egidazu, otzez ta busti-busti eginda nago-ta», deadar egin eban kanpo-aldean mutikotxu batek. Antxe ebillen negarka ta atejoka. Bitartean ur-uriola jausten ta aizeak leio guztiak astintzen.

«Gizajoa», esan eban olerkari zarrak, zabalzera joiala.

Mutiko bat agertu zan, narru-gorritan, urrezko uleetatik euria eriola. Otzez dar-dar egoan. Sartu ezik, ilgo zan bai, alako eguraldi zantarrarekin.

«Txikitxo, gizajoa», esan eban olerkari zarrak aren eskuak artuaz batera. Erdu neugaz, neuk beroa emongo dautzut-eta. Gaiñera, ardaoa ta sagar bat bere bai, mutikotxu polita zarealako».

Bai polita benetan! Begiak izar dizditsuen antzekoak zituan. Ta bere urrezko adatsari euria jario arren, kizkur-kizkur eginda eukan. Aingerutxu bat emoten eban, otzarren dar-dar baten eta zurbil egon arren be. Eskuan uztai bat, euriagaz dana ondatuta. Gezien margoak naste eginda ura zala-ta.

Olerkari zarra berokiñaren ondoan eseri

zan mutikoa belaun-gaiñean artuta. Ulea legortu eutson, eskuak bereakaz berotu ta ardao gozo beroa emon eutson. Onelan mutikoa pizkortu zan. Matraillak gorri-gorri jarri yakozan ta asi zan bei-gaiñean jauzika ta agurearen inguruan dantzaka.


«Alaia zara, mutiko, esan eutson agureak. Zelan dozu izena?».

—Maitasuna, erantzun eutson; ez nozu ezagutzen? Ona emen nire uztai! Beronetxegaz jaurtiki egiten dot, bene-benetan, bai! Ara, aterri da; aro ona dago ta illargia diz-dizka!

—Ondatuta ta apurtuta dozu uztai, esan eutson olerkari zarrak.

—Auxe tamalá, esan eban mutikoak, uztai begiratu ta batuaz. Baiña, onezkero legor dago ta guztiz apurtuta be ez dago. Aria tenk dago.

Aproba egin bear dot! «Uztaiari tenk egin,



gezi bat bertan ipiñi ta ondo-ondo begiraturik agurearen biotz-biotzean aparau egin eban».

Orra, uztaia ondatuta al dago?», esan eban barrezka. Ta alde egin eban. Au mutiko gaiztoa! Olerkari zarrak bere etxea zabaldu, berotu, ardao bikaiña ta sagar onena emon ta aretxeri gezia jaurti!

Olerkari gaixoa, beian etzanda, negarrez ari zan. Egitan biotz-biotzean jo eutson. «Ut ortik, Maitasun mutiko gaiztoa! Mutiko guztiai azaldu bear dautset au, bein be beragaz olgau ez daitezcan, bestela kalte egingo dautse!».


Neska-mutiko on guztiak, agureak esanda, kontuz ibilli ziran Maitasun biurriagaz ez jolas-tuteko. Berak, baiña, beingoan arrapatu eban. Txarra zer dan! Ikasleak eskolara doazanean, bera be euren ondoan, besapean idaztia ta baltzez jantzita. Ezin dabe igarri nor dan ta besotik oratu be egiten dautsoe, beste ikasle

bat dalakoan. Ta orduantxe berak gezia bularreratzen dautse. Neskatoak abadearengandik alde egin orduko ta eleizan dagozalarik be atzetik dabilkie bera. Beti iñoren, nor edo noren atzetik. Antzokian argi-ontzi andian jarri ta dizdiz egiten daki. Jendea argi bat dalakoan. Baiña laster konturatuten dira oker egon dirala. Erregearen baratzean ere ariñeketan dabil ormetan gora ta bera. Bai, zuen aita-amak antxiña biotz-ikutua artu eben beragandik. Esan euroi ta entzun zer diñotzuen. Mutiko gaiztoa Maitasun au, bai, ta obe iñoiz beragaz artu-emonik ez eukitea. Diranai jarraitzen dautse. Kontuz gero! Egun baten amamari be ez eutson gezi bat jaurti! Antxiña da au jazo zala ta onezker ez da ezer. Baiña berak ez dau aitzuko ain errez. Alde ortik, Maitasun gaiztoa, alakoa! Orain ba-dakizue zelakoa dan, mutikotxo bat gaizto-gaiztoa.

ZERUKO LOREA

Zeru barreanean, aize garbi-garbienean zear, aingeru bat egaz igon zan atsentokiko lore bat eroala. Ta an goian mosu bat emonaz, orri bat lurrera bialdu eban. Baso baten erdi-erdian jausi zan. Beingoan sustraitu ta beste landaren artean azi zan.

Beste landarak ez eben eurentarikotzat artu. «Zelako jauskera banakoa! Kardu ta asunak iñork baiño ixeka andiagoa egioen: «Nundik norakoa zaitugu? Barazkiren bat ete?», esaten eben karduak erdaiñuz. «Ikusi al dozu iñoiz iñor orren arin jatsiten? Ederto, ta usteko dau emen gaukazala makurtzen danean berari eusteko!».



Negu-aldia etorri zan, edurrak eguzkia ostendu eban. Zerutikako landarak soiñu berezia emoten eutson edurrari, eguzki-izpi batek azpitik argitu izan ba'leu legez. Udabarrian iñoiz ikusi bako lora ederra ekarri eban. Errialdeko landaredi-irakasle entzutetsuena jakitun ipiñi eban. Antxe etorri zan bera titulu-agiria ta guzti, asko bai ekian arek! Landara ikus, aztertu, orriak murtxatu. Berak ikusitakoen artean antzekorik ez eukon. Ez ekian zein landara-muetan sartu.

—Mendu bat edo izango da, esan eban. Ezin sartu iñungo muetan.

—Iñungo muetan sartu ezin, birresaten eban kardu ta asunak.

Zugatz andi-lodiak ikusi ta entzun eban zer jazo zan. Ez eban tautik be esan ez alde ez aurka. Abere izanik, au azkotaz obea da.

Ta ara umetxo bat, garbitasuna bera, baso-

ra eldu zan. Biotza garbi ta adimena siñisme-
nez andi eban. Munduon Idazteun zar bat baiño
ez eban ta aretxen bidez berba egiten edo
eutson Jaungoikoak. Antxe ikasi eban zelan
gizonak gaiztoak diran. Baita be, zuzengabe
egiten dauskuenean, gure lepotik parre egin ta
destaiñez erabilten gaituenean gurutzean, Jain-
ko-semba onengana biurtu ta beragaz batera
esan bear dala: «Aita, parkatu egiezu, ez dakie
zer diarduen-eta».

Umetxoa lora miraritsuaren ondora joan
zan. Lorak egundaiñoko usain gozoz beteten
eban aizea, ta josta-suaren antzera eguzkitan
dizdizka agertzen zan. Aizęak beraren orriai
eragitean, zeruko soiñuak entzuten ziran.
Umea arri ta zur egiñik lotu zan arrigarri aren
aurrean. Lora-urreragotu zan obeto ikusteko ta
aren gozoa artzeko. Biotza sendotuta ta gogoa
Jainko-jakintzaz argituta nabari zituan. Pozik
artuko eban lorea. Alan be, zimeldu ez eiten
antxe bertan itxi eban. Orri bakarra kendu eut-

son Idazteunean jartzeko ta antxe dirau bizi-
bizi ta oso orlegi. Aste batzuk geroago Idaz-
teuna, lora-orria ta guzti, umearen buru-gai-
ñean ipiñi eben il-kutxan. Bake-kaketsu etzan
ta aren arpegi sendo-gozoaren gaiñean lur-
autsetik azke izanak eta Egilleagana joanak
zorion-ezaugarriak jartzen ebezan.

Bitartean landara gero ta andiago, gero ta
loretsuago. Basoko txoriak beragana urrera-
tzen ziran lotsa erakutsiaz.

—Ara, kanpotarrok!, eragoioen marmarka
kardu-asunak. Ba al dakie zer dala-ta egiten
dautsoen olako omena? Guk daukagu errua
orren memeloak garealako.

Ta basoko bare nazkagarriak zerutik jausi-
riko landararen aurretik laprastaka igarotzen
ziran. Artzain batek, bere sutarako arbaztak
billatzen ebillelarik, sustraiak, karduak eta lan-
dara eder a be, sustar eta guzti, atara ebazan.

—Nire janariak egosteko, zer edo zertarako balio dau onek, esan eban bere barrurako.

Errialde aretako erregea aspalditik egoan illuntasun ikaragarriaz jota, ta ez egoan ezer bera osatzeko. Burua arintzeko asi zan bere erri tarren arazoak aztertzen. Idazle onenatarikoak, baita arin-ezerezak be irakurriazo ebazan bereztzako. Alperrik. Orduan lurreko gizon jakintsuengana jo eban. Arek erantzun eban bide bat egoala erregea osatzeko: bere erreñuko baso baten egoan landara zerutar batetik orri bat kendu. Zelakoa zan landara au be zeatzmeatz azaldu eutson. Ta jakinguraz erabilli eben landara a gogoratu eben.

—Arraioa, kendu egin dot!, egin eban artzaiñak. Aspalditik errauts batzuk baiño ezta goz. Orra zer egiten dauan ezjakiñak. Txarri zaiña lotsatuta egoan eta bere ixilkia ondo gorderik euki eban. Dana-dala, ez eban gurari ain txarra izan. Jakintsuak eurak be bera baiño

zurrago agertu al ziran? Landara aretatik aztarrenik bere ez. Umearen illobian orri bakarra egoan. Baiña iñork jakin ez. Erregea bera etorri zan basora landara galdu zala ziur jakin artean.

—Ementxe azten zan, aurki, esan eban; onezkero leku doneren baten egongo da.

Leku a urrezko esiaz inguru-azo eban gordetzeko gudariak jarriaz.

Landaredi irakasle ospetsuak idazki luze bat egin eban jakintza eriola, landara zerutarra zelako mesedegarria leitekean azalduaz. Bera galduaz galdu zan dana agerrarazo eban. Erregeak idaztiaren orriak urrez estaldu ebazan banan-banan eta urte aretan iñoizko geien irabazi eban.

Erregea bere gaxoa osatu eziñik eta jagole gaixoak basoan asperturik.

POXPORO-SALTZAILLEA

Izugarri otza zan. Illunabar-aldea edurretan. Urteko azkenengo eguna, done Silbester'ena.

Oztasun ta illuntasunaren erdian neskato bat joian odeipetan, buru-utsik eta ortosik.

Egia esan, urtekeran zapatatxo batzuk artu ebazan, baiña alako sasoian alperrik.

Amaren oiñetako andiak, lendik bere erabilliak. Lar andi beretzako ta neskatoak biak galdu ebazan kale bat zearkatzean, zalpurdia ariñeketa bizian igarotzen ziran unean.


Lenengoa burdi baten gurpil-azpitik jausia galdua zan, kalean izotzak itsasia ta aurkitzeko

era eziñean. Bigarrena, barriz, mutiko batek jaso ta aidetara bota eban barre-algaraz. Gero mutikoa joan egin zan neskatoari deadarka esanaz, zapata aretatik seaska bat atara bear ebala semerik euki ezkeru.

Umea an joian, beraz, ortosik, beatzak otzaren otzaz ubelduta. Amantalean poxporoak zitan ta poxporo-kutxatxo bat eskuan eroan.

Bidazti asko aurkitzeko leku baten billa ibilli zan. Baiña otz andiegia zan eta bidaztiak arin aringa iges egiten eben kaleetan zear neskatoaren eskeintzari jaramon egin barik.

Egun osoan bat ere ez eban saldu ta iñortok ez eutson eskupekorik bota. Goseak eta otzak ilten, bideari ekin eutson gizajoak. Edurmalutak bere ule luze-kizkurretan jausten ziran. Alan be berak ezeri aditu barik aurrera ta aurrera egian.



Leio guztietan argiak diz-dizka ta kaletik ardi errearen usaiña nabaitzen zan. Done Silbester'en arrastia zan. Gure txikerra ametsetan, antxiña baten, bere amama bizi zala, bere etxean ere Done Silbester'en jaia egiten zala-ta. Eriotza a ezkerro, ondasun guztiak galdu, umetako egun alaietan bizi ziran untzorriz ingurutatutako etxetxoa kendu ta zoko illun batera joan bear izan eben biziten, biraoak eta berba txarrak besterik entzuten ez ebela.

Bazter baten kikilduta, etxe biren artean, geratu zan. Oiñak tolestu ebazan baiña gero ta otzago. Ta ez zan azartuten etxera atzera joaten poxporo-toxa bat beintzat eta txanpon bat gitxienez eskuratu barik. Osterantzean aitak jipoia berotuko eutson. Ta gaiñera etxe aretan be otza!

Ganbara baten bizi ziran ta aizeak gelabarruan jo egiten eban, zirrikitu andienetan

trapu batzuk jarri arren. Neska gaixoak eskuak otzakilduta eukazan. Ondo etorriko litzakio poxporo baten su beroa! Bat kendu, ormaren aurka igurtzi ta atzamarrak berotuko ba' leuz! Azkenean orixe egin eban. Zelako su-garra! Garra, orizka-orlegizka artean, zurigo- rri agertzen zan txandaka. Ta inguruan edu- rraren zaratatxua, urrera argitasun bizi ta alai bat botatzen ebala.

Neskatoak eskuak an zituan bitartean, poxporoa ikatz gori baten antzo dizdiratsua zan. Argiaren ederra! Burnizko berokin ba- ten aurrean egoala iruditu yakon neskatoa- ri. Suak dizdiz egian biziki bero leuna zabal- duaz. Zelako ederto! Bere eskutxuak garre- tan beroturik, poxpoloari eusten eutson, atza- marra be diz-diz baten egoala esan leite- kean. Onetara ordu luzeetan egon al ba'leu, gelditu barik, su eder baten aurrean, negu- ko gau izoztu baten edurrak lurra estaldu ta iparrak jotzen dauanean! Oiñak ere luza-

tu al izateko... ta orra su-garra amatau ta surik ez. Antxe egoan bera jezarrita, poxpo- ro kutxa eskuetan. Arriturik begiraten eu- tson, zergaitik amatau zan argitu eziñik. Ge- ro asi zan pentsetan bere aitak saltzeko emo- nak zituala poxpoloak eta etxera orduko asa- rre egingo eutsola.

Atarañoko otza zan, barriro ekin eutson lengoari. Bigarren sua piztu, dantzari ta diz- dizari. Argia ormaraiño eldu zan. Ta oial zu- ri bat bai'litzan dizdizka agertu zan. Txike- rrak ango gelara begiratu eban. Maia gertu- rik egoan, zamau zuriagaz eta jesarleku apai- ñakaz. Bildots errea ta igaliak ugari ziran gaiñean. Ta auxe arrigarriena: bildotsa jau- zi egin ta neskatoagana etorren, aiztoa ta sardatxoa bizkarrean. Gerogarrenean... pox- poloa amatau ta orma lodi ta otza besterik ez zan ikusten.

Amets egiña joan ta egia an: mai orni-

duaren lekuan kale baltzan izotza, edurrak zurituta, iparra putz egiten ta ibiltari bakan batzuk etxera-bidean arin bai arin, jantzi be-roetan batuta ta saltzaille errukarriagaz aztuta.

Irugarren poxporo bat ixiotu eban neska-toak. Orduan Gabon-arbola baten gaiñean ikusi eban bere burua. Igaz salerosle batenean leiar-zear ikusi ebana baiño garaiago ta ederrago. Adar orlegietan millaka argi dizdiztsu, irudi margodunak erakustokietan agertzen diranak lakoak begiztatu ebazan. Esku biak zugatz-aldera jaso... ta poxpoloa barriz amatau. Ango argi guztiak gora ta gora arturik, zeruan izar lez kokatu ziran.

—Une onetan norbait ilten dago, esan eban beretzako neskatoak. Antxiña ilda egoan bere amamak, bera maite izan eban bakarrak, esana eukotson: «Izar bat dabillenean, gogo bat Jaungoikoagan». Beste poxpolo bat igurtzi eban ormaren kontra. Argitasun andi bat za-

baldu zan inguruan ta neskatoak bere amama ikusi eban, gozo-gozo irribarre egiten eutsona.

—Amama, deadar egin eutson, eroan nagizu! Ba-dakit suntsituko zareana poxpoloa amatau orduko, berokina, bildotsa okela ta zugatza legetxe. Ez nagizula emen itxi Ain zorioneko giñan biok, oraindik Jaungoikoagana joana ez ziñanean! Orduan esaten zeustan zугanatuko nintzala zintzoa ba'nintzan. Amamatxua, arren, esan egiozu Jaungoikoari zeugana joan naiten. Ez dautsu ukatuko-ta. Poxpoloa amatau zan ta beragaz batera neskatoaren arpegikera argitzen eban irudipena ere bai. Orduan neskatoak kutxan egozan poxpolo guztiak sutu ebazan. Amamagana gura eban berak-eta! Alako argia jaurti eben poxpoloak, egun betean egoala siñistu leitekean. Bere amama iñoiz ez yakon iruditu aren andi ta eder. Neskatoa eskutik oratu ta biak go-

rantza artu eben andikiro. Arrezkero ez goserik, ez otzik, ez kezkarik beretzako: Jaungoikoaren altzoan egozan.

Biaramonean edurrak lurra estaltzen eban alderdi guztietan ta eguzkia dizdira argiz jagi zan zeru urdin-urdiñean. Guztiak pozarren egozan.

Etxe aretako biurgunean, urrengo egunean, mosu gorri ta ezpan irritsu, neskatoa aurkitu eben. Urteko azkenengo illuntzean ilzan otzaren otzez.

Urte barriko lenengo eguna poxpoloak eskuan zituan neskato arengana etorri zan. Berotu gura, nunbait, iñoen bidaztiak, Baiña iñork ez ekian zelako gauza arigarriak ikusi eban, ezta noragiñoko argitasunean sartu zan urte barriko pozaldietan.

TXARRIZAIÑA

Beiñola Erre gai guztiz txiro bat bizi zan. Bere erreñua txiki-txikia zan. Baiña, txikia zan arren, ezkondu al izateko naiko andia bazan; ta gure Errege-gaiak, ain zuzen be, emazte bat billatu gura eban.

Enperadorearen alabari gogoz esango eutson: «Nigaz ezkondu gura dozu?», ta bildur barik esan leikeon; bere izena, ba, inguru guzti areitan ospetsua zan, eta amaikatxo Errege-gaiek baietz erantzungo eutsoen aren eskabideari.

Baiña, Enperadorearen alaba!

Entzun zer jazo zan.



Gure Errege-gaiaren aitaren illobi gaiñean larrosoño bat egoan. Zelako polita! Bost urterik baten bakarrik loratuten zan. Ta orduan bere larrosa bat baiño ez eban emoten. Baiña, zelako larrosa polita! Bere usain gozoa artu ezker, kezka ta neke guztiak aztuten ziran. Urretxindor bat be ba-zan, ederto abestuten ebana; bere eztarritik soiñu politenak urtetan ziran. Enperadorearen alabak, euron entzutea ba-eban eta larrosa ta urretxindorra lortu gura ebazan. Errege-gaiak zidarrezko kutxa eder bitan sartu ta bialdu eutsozan.

Enperadoreak bere aurretik eroan-azo ebazan Errege-gaia andragoiakaz egoan gela andi batera. Kutxa biok ikustean, txaloka asi zan, zoraturik.

—Katu txiki bat baiño etzan! —oiu egin eban berak.

Ta, ara, larrosoñoa atara eban lenengoa.

—Auxe larrosoz zoragarria! —egin eben andragoiak.

—Zoragarria ez-eze, arrigarrero egiña be ba da! —esan eban Enperadoreak.

Erregin-gaia orduan, usaiña artuz, ia negar egiteko zorian asi zan:

—Ene, aita! Ez da eskuz egiña, egizko larrosoz bat da!

—Bai —esan eben jauregitarrak—, egizko larrosoz da!

Enperadoreak jardetsi eban:

—Joan baiño len ikusi dagigun zer dagoan beste kutxa orretan.

Ta, ara, urretxindorra agertu zan. Ain gozorik abestuten asi zan bera, ta txarto esaterik ez egoan.

—Zoragarria! Arrigarria! —esan eben prantsesez andragoiak. Bada prantsesez ba ekien, batak besteak baiño txartoago.

—Txori onek Enperatrizareneko musika-soiñua gogoratzen daust —esan eban jauregitarrak zar batek—. Soiñu berbera da.

—Bai, benetan —esan eban Enperadoreak. Eta umetxu bat legez negarrez asi zan.

—Gatxa egiten yat egizko urretxindorra dala siñistutea —esan eban Erregin-gaiak.

—Bai, arrazoia da —esan eben ekarri ebenak.

—Ondo da! Joan daitela egaz! —iñoan berak; eta ez eutson ezelan be, Erregin-gaiari sartzen itzi.

Beronek, baiña, ez eban usterik galdu.

Arpegia baltzitu, txapela begietaraiño sartu ta errenarena egíñaz aurkeztu zan.


—Egunon, jauna! —esan eban—. Gazte-luan morroi sartu ete neinteke?

—Eskabide asko daukodaz —erantzun eutsen Enperadoreak—. Alan be, txarrizain baten bearrean naz, ondo ba'yatortzu.

Errege-gaiak onartu eban txarrizain izatea. Gela zantar bat emon eutsoen, txarrikortaren ondoan; goizetik gabera bearrari ekin eutsen, ta lenengo gaberako lapiko txukun bat eginda eukan, dana kanpai txikitxuez beteta. Sutan ipiñiaz batean arako, antxiñako doixtar soiñua joten eban:

**«Ach! du lieber Agustin,
Alles ist vaek, vaek, vaek!»**

Baiña, ara be gauza arrigarriagoa: lapiko-lurrunean atzamarra ipiñi ta erriko sutondo



guztietan prestetan egozan jatekoak usmatzen ziran. Larrosa bat baiño zerbait geiago ba-zan!

Erregin-gaia bere ohorezko andrazkoak lagun ebazala, andik pasietan igaro zan. Soiñua entzun eta zoraturik gelditu zan, berak beba ekian soiñu a jotzen-da.

Ach! du lieber Augustin!

Egia esan, geiago jotzen ez ekian ta atzamar bakar bategaz jotzen eban.

—Auxe da nik dakidan soiñua —esan eban—. Txarrizain au ezta memelo bat. Itandu dagioela zenbatean daukan salgai bere jogaillua.

—Zegan saltzen dozu lapikoa? —esan eutson.

—Erregin-gaiaren amar mosuren truke.

—Jaungoiko maitea! —oiu egin eban andereñoak.

—Merkeago ez —esan eban txarrizaiñak.

—Zer diño? —itandu eban Erregin-gaiak.

—Lotsa naz barriro esaten —erantzun eban andrazkoak—. Izugarria da!

—Aopean esan egidazu —gaiñeratu eutson Erregin-gaiak.

Orduan andrazkoak bota eutson arek esana.

—Zantarra alakoa! —deadar egin eban Erregin-gaiak. Eta andik aldendu zan.

Amar pausu emon ebazanekoxe, kanpaiak asi ziran gozo-gozo joten.

**Ach! du lieber Augustin,
Alles ist vaek, vaek, vaek!**

—Zoaze, ia nire andrazkoen amar mosu gu-
ra dauzan.

—Ez, eskerrik asko! —esan eban txarrizai-
ñak—. Erregin-gaian amar mosu; osterantzean,
lapikoa neuretzat gordeko dot.

—Gizon au dan buru-gogorra! —bota eban
Erregin-gaiak—. Dana dala, jarri zaiteze nire
inguruan iñok ikusi ez nagian.

Andrazkoak aren inguruan jarri ziran, go-
nak zabalduaz; txarrizaiñak amar mosuak artu
ebazan eta Erregin-gaiak lapikoa.

Danak zoratu bearrean ebiltzan. Arratsalde
guztian lapikoari soiñu eragiten ibilli ziran.
Erriko supazter guztietan zabaldu zan barria.
Jauregiko gela-zaiñak eta zapatariak egun atan
jan ebena be jakin zan. Erregin-gaiaren andra-
goi lagunak pozaren pozez saltoka ta txaloka
iñarduen.

—Orain ba-dakigu nork jango dituan zukua,
arrautz-opilla, morokilla edo okela! Arrigarria
da gero!

—Olantxe da —esan eban jauregiko ardu-
radun nagusiak.

—Kontuz, gero; ez zaiteze barriketan asi
—esan eutsen Erregin-gaiak—, Enperadorea-
ren alaba nozue-ta.

—Eguno bere ez olakorik —iñoen danak
batera.

Txarrizaiñak, guztiak egizko txarrizaintzat
joten eben Errege-gaiak, ez eban egunik igaro-
ten zer edo zer barri asmatu barik.

Karraka polit bat landu eban. Jira-biraka
ibilli ezkerro, valsak, polkak eta, munduko dan-
tza soiñu guztiak jotzen zituan.

—Zeiñen ederra! —esan eban Erregin-

gaiak, andik igarotzean—. Iñoiz bere ez dot olako gauza ederrik aditu. Zoaze ia zenbat balio dauan karrakak; baiña, oraingoan, ez dautsodala mosurik emongo, ezta urrik emon be.

—Oraingoan eun mosu eskatzen dauz —esan eban sartu zan andragoiak.

—Burutik egin yako —iñoan Erregin-gaiak.

Ta alde egin eban. Baiña... amar pausu emon orduko gelditu zan.

—Artea biztu egin bear da —esan eban—; Enperadorearen alaba naz. Esaiozue amar mosu emongo dautsodazala, atzo lez. Enpara-uak nire ohorezko andrazkoengandik jasoko dauzala.

—Ganorabako orreri mosurik emon?—esan eban andragoiak.

—Ta zer? —erantzun eutson Erregin-gaiak—; nik neuk ondo deritxot. Zuek nire menpeko zarie, ezer baiño len! Jana ta ordaiña nigandik daukazuez!

Andragoia txarri-zaiñarengana atzera biurtu zan.

—Erregin-gaiaren eun mosu —esan eutson txarrizaiñak—. Bestela, bakoitzak bere ondarena beretzat gorde dagiala.

—Joan zaiteze nire aurretik —gaiñeratu eban Erregin-gaiak.

Andragoiak ingurua egin, ta asi zan txarri-zaiña mosuak artzen.

—Zer gertatzen da or, txarrikorta ondoan? —esan eban Enperadoreak bere balkoitik.

Begiak igortzi ta betaurrekoak ipiñirik, esan eban:

—A!, andragoiak dira, olgetan dabiltzanak!
Ba-noa ia zer dagoan.

Oiñetakoak ipiñi ta an zan berealakoan.

Ara eldukeran astiro-astiro urreratu zan.
Baiña alperrik. Andragoiak naiko lana eben;
mosuak zenbatu, mutillak agindutakoak baiño
geiago artu ez egizan.

Enperadorea ez eben ikusi. Beraren beatz-
puntetan urreratu zan.

—Zer da or? —itandu eban.

Ta oiñetakoa arturik asi zan andrazkoai
astiñaldi ederra emoten.

—Txarrizaiña larogei ta seigarren mosuan
egoan.

—Alde emetik! —deadar egin eban Enpe-
radoeak, asarez.

Txarrizaiña ta Erregin-gaia erreñutik kan-
pora bota ebezan.

Euria ibaika jausten zan. Erregin-gaia nega-
rrez asi zan.

—Nire zori txarreko! —oiu egin eban—.
Erregegai zintzoa ez da nigaz ezkondu!

Txarrizaiña arbola baten ostean ostendu
zan; arpegi baltzitua garbitu, bere jantzi zar-
paillak kendu ta Erregin-gaiarengana biurtu zan
Errege-gai jantzita.

—Nire erreñua erakustera etorri niaitzu!
—esan eutson—. Errege-gai zintzo bat ez dozu
izan, larrosa ta urretxindorra bere ez dozu
onartu ta, uskeri bategaitik, txarrizain bat laz-
tandu dozu. Utikan...

Berealaxe bere aginterri aldera artu ta atea

sendo bai sendo itxi eban. Erregin-gaia alpe-
rrik etorri yakon abestuten:

**Ach! du lieber Augustin,
Alles ist vaek, vaek!...**

Errege-gaiak ez eutson aterik zabaldu.

AGERTUTAKO IDAZTIAK:

1. Phedro'ren Alegiak I
2. Martial'en Ziri - Bertsoak I
3. Phedro'ren Alegiak II
4. Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
5. Euskal Iztegi Laburra (A)
6. Esopo'ren Alegiak II
7. Agustin Deunaren Eskutitzak I
8. Gurutz - Bidea
9. Phedro'ren Alegiak III
10. Batikano II Batzar-Agiriak (Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak)
11. Perrault'en Ipuñak
12. Batikano II Batzar - Agiriak (Gizarte artuemonetako bideak)
13. Apuntes de Vascuence (Segundo Curso)
14. Lope de Vega - Bakar-Autuak
15. Liturji - Goratzarreak
16. Jaungoikoaren Agerpena (Batikano -Agiriak)
17. Maitale Galdua (olerkiak)
18. Lati-izkuntzaren joskera (Orixe)
19. Euskal Iztegi Laburra (B - D)
20. Kristau - Aziera (Batikano Agiriak)
21. Euskal Iztegi Laburra (E - F)
22. Basoko Loreak (olerkiak)
23. Lo ta Amets (olerkiak)
24. Apuntes de Vascuence (Primer Curso)
25. Katalunya'ko Olerkariak
26. Bidaztien Aterpea
27. Apuntes de Vascuence (Tercer Curso)
28. Euskal Iztegi Laburra (G - I)
29. Galburutan (Gallastegi'tar Kauldi)
30. Euskerázko Meza (Intxausti'tar Artur)
31. Humanae Vitae
32. Euskal Idazleak (I) Mendiburu'tar S.
33. Gabon - Abestiak (Intxausti'tar A - Gallastegi'tar K)
34. Españi'ko Olerkariak euskeraz
35. Prantzi'ko Olerkariak euskeraz
36. Españi'ko Olerkariak euskeraz II
37. Euskal Idazleak (II) Añibarro'tar A.
38. Kikero'ren eskutitzak.
39. Espata zorrotza-Ezcutuko aria (olerkiak-antzerkia)
40. Andersen'en Ipuñak